



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2017/11/29

Iberdrolak Lemoizko zentral nuklearraren gainean dituan eskubideak aurretik lagatzea gura dau Aldundiak

Imanol Pradales Ekonomia eta Lurralde Garapenerako diputatuak Gernikan egin dan kontroleko osokoan gaur jakinarazo dauenez, euskal erakundeak Iberdrolagaz negoziazioetan dabilz, konpainia horrek hurrengo hilebeteetan Lemoizko zentral nuklearraren gainean dituan eskubideak laga daizan. Horrek, lurra barriri be euskal titulartasunekoak izatea aurreratu leike, Gobernu zentralak “euskal erakundeei gehien interesetan jaken moduan” transmitiduten dituanean, PP eta EAJ-PNV alderdien artean maiatzean sinatu zan akordioan oinarrituta.

Pradalesek azaldu dauenez, inplikautako hiru erakundeak –Eusko Jaurlaritza, Aldundia eta Lemoizko udala– alkarregaz dabilz beharrean, “kontraprestazinoarik bako” Iberdrolaren errenuntzia hori “arintzeko”. Izan be Iberdrolak lurren emakidea dauka oraindino, 2018ko garagarrilaren 29ra arte. Holan, “ez litzateke itxoin beharko eta hurrengo pausua emon ahal izango litzateke”. Adierazi dauenez, une honetako lehentasuna, Iberdrolagaz “emakidaren errenuntzia ixtea da”. Prozesua “konplexua” izango dala aurreikusten da, inplikauek “alderdi juridiko eta legal asko eta asko” arindu behar dituelako, adierazo dau Pradalesek.

Diputatuak holan erantzun deutso EH Bildu taldeak, Lemoizko zentral nuklearraren lurra izandakoen gainean egin dauen itaun bati. Eusko Jaurlaritzak orain denpora gitxi iragarri ebanez, akuikultura polo bat bultzatzea aurreikusten da. Ekonomia eta Lurralde Garapenerako diputatuak gogorarazo dauenez, “lehenengo” joan dan maiatzean PP eta EAJ-PNV alderdien artean lortu zan akordio politikoa itxi behar da, “lurren transmisinoa eta lurreko jabari publikotik desafekzinoa bete daiten”.

"36 HILEBETE" TXIRRINDULARIENTZAKO BIDEEN LSP-PTS-A BUKATZEKO

Bizkaiko Bizikleta-Bideen Lurralde Sektore Planaren onspenaren gainean galdetzen eban PP taldearen itaunari erantzunez, Pradalesek iragarri dau hori martxan jarteko aurretik egin beharko diran lanek “36 hilebete” eskatuko dabela. Datorren “abendua 7an” bukatzen da enpresek, Txirrindularitza proiektuaren idazketarako eta bulegorako laguntza teknikoko lehiaketa publikora euren eskintzak aurkezteko epea.

Pradalesek gogorarazo dauenez, bere sailak "175.000 euroko" partidea dauka erreserbauta 2018ko aurrekontuetan gai horri ekiteko eta “lehenengo pausuak” emoteko, urtariletik aurrera. Holan, Bizkaian, sare “erosoa, segurua eta inguruko lurraldeakaz koordinaua” egituratuko da, eta sare hori bat etorri beharko da Batzar Nagusietako ponentzia batean lantzen ari dan Errepideen LSP-PTSagaz.

ESG GLOBAL SUMMIT , BAGILAREN 11N ETA 12AN

Bizkaia bere bigarren ESG Global Summit ospatuko dau 2018ko bagilaren 11n eta 12an Bilboko Euskalduna Jauregian. Goi bilera horretan nazinoarteko adituak alkartuko dira, gizartearen ikuspegitik arduratsuak diran inbertsinoen inguruko joerak eta barrikuntzak aztertzeko, Unai Rementeria Bizkaiko Ahaldu Nagusiak “primizian” aurreratu dauenez.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Ahaldun Nagusiak, edizino honetan, “mundu mailan” erreferentziazkoa dan unibersidade baten partaidetzea lortu gura dabela iragarri dau.

Bizkaiko Ahaldun Nagusia EH Bilduko Batzarretako taldeak egindako itaun bati erantzuteko etorri da Batzar Nagusietako osokora. Koalizino abertzaleak, “Gizartearen ikuspegitik Arduratsuak diran Inbertsinoak” “zelan ulertzen dituan” azaltzeko eskatu deutso Foru Gobernuari. EH Bilduk kritikau egin dau lehenengo edizinoan –Deustuku Unibersidadeagaz eta Finecogaz batera antolatutakoan– Luis De Guindos ministroa, “alderdi ustel baten” ordezkaria eta “banka harrapariaren” ordezkariak ekarri izana konbidau moduan.

Bere erantzunean, Unai Rementeria Bizkaiko Ahaldun Nagusiak berretsi egin dau bere gobernuak gizartearen ikuspegitik arduratsuak diran inbertsinoak bultzatzeko egiten dauen apustua, holango inbertsinoak “benetako aukerea” diralako Bizkaiarentzat. Adierazo dauenez, erronka hori “irisgarriagoa” izango da Bizkaiak “Finantza arloko ekosistemea, Bizkaia hub izenekoa, baldin badauka, epe laburrean gauzatu behar diran ekintzen batuketea, hain zuzen be, baina beti epe ertainera eta luzera begira, orain urte batzuk Bizkaiak euki eban finantza arloko garrantzia berreskuratzeko, jardueria erakarteko asmoagaz, aurrerapen inklusibo eredu sinestuz”, “benetako ekonomian oinarritutako” inbertsinoakaz, “ez espekulazinoan oinarritutakoakaz, ingurumenaren, laneko baldintzen eta gobernantza moduaren gaineko erantzukizunakaz”.

HIZKUNTZ ERESPIDEAK BIZKAIBUSEN

Beste alde batetik EH Bilduk, Bizkaibusen publizidadean jarraitzen diran hizkuntz erespiden gainean galdetu deutso Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesio diputatuari, talde horrek gai horregaz erlacionautako “kexak” jaso ditualako. Aldundiko arduradunak adierazo dauenez, Aldundiak ez dau ezelango erespidetik sartu enpresetan, euren jakinarazpenetarako erabili behar daben hizkuntzari jagokonez. Halanda be, “autobusen %59ak” gaztelaniaz eta euskeraz idatzitako publizidade mezuak eroan ditue.

Reyesek adierazo dauenez, Aldundiak “esfortzu handia egiten dau enpresetan euskeraren erabilerea sustetako”. “Bizkaian ibiltzen diran autobusen publizidadearen kasuan, “ezin dogu inponidu”, enpresek “ez dabelako iragarkirik jarten bilatzen daben eragina lortzen ez badabe”. Diputatuak konpromisoa hartu dau, euskeraren erabilerea “bultzatzeko aukerea aztertzeko”, publizidaderako espazioen hurrengo lizitazinoan, baina jakinarazo dau, baita be, beste garraio publiko batzuetan “ez dagola holango eskakizunik”.

HERRITARREN EKARPEN BI SARTU DIRA ZERGA ALDAKETEN AURREPROIEKTUAN

Zerga arloko aldaketen aurreproiektuak “50 ekarpen” inguru jaso ditu entzunaldi eta jende aurreko informazino epealdian. Horreetatik erdiaren eukiak “egokitza” hartu dira, eta “bi” testuan sartu dira, José María Iruarizaga Ogasuneko diputatuak jakinarazo dauenez.

Diputatuak Podemos Bizkaia taldearen erantzun-eskea jaso dau osokoan, eragileek eta adituek aurreproiektuari egin deustien ekarpenaren inguruan. Asun Merinero batzarkideak “eragile ekonomiko batzuakaz berba egitea eta beste batzuakaz, barriz, ez” aurpegiratu deutso Foru Gobernuari.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Arauzko testuaren entzunaldi eta jende aurreko informazio epealdian, zehazkiaren 2tik 17ra, 20 pertsona edo erakunde sartu dira partaidetza prozesuan, baina zazpi izan dira behar dan moduan erregistratu diranak, eta bik ekarpenak egin ditue. Ekarpen guztiak 50 inguru izan dira, baina erdiek ez dabe ezelango erlazinorik euki arauaren zerga tratamenduakaz. Iruarriazagak adierazo dauenez, herritarrek aldaketak proponiduteko beste aukera bat izango dabe, Bizkaiko Batzar Nagusietan egingo dan tramitazio prozesuan.

BAZTERKERIA ARRISKUAN DAGOZAN EMAKUMEENTZAKO PROGRAMA ESPEZIFIKOA

Beste alde batetik, Teresa Laespada Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasun diputatuak, Gizarte bazterkeria egoeran edo horren arriskuan dagozan emakumezkoentzako berariazko programea sortzearen inguruan galdetu deutsan PP taldeari azaldu deutesonez, berak zuzentzen dauen saila Emakume eta Familia zerbitzua “barriro ari da planteetean”, gizarte arloko bazterkeria arriskuan bizi diran emakumeen beharretara egokitzeko, Aldundiak “genero irekidurea” hauteman dauelako.

Eduardo Andrés batzarkideak kritikau egin dau “urte bi” darozala bazterkeria arriskuan bizi diran emakumeentzako programa espezifikoa martxan jarri behar dala iragarten eta kostua ebaluetan, eta inoiz ez dala zehazten. Bere eretxiz diputatu andreak “badaki zein dan gastua” baina bere sailak ez dauka hori aurrera eroan ahal izateko behar beste diru. Hori dala eta, zuzenketa-eskea aurkeztu dabe 2018ko aurrekontuetan.

Laespadak adierazo dauenez, PP taldeak eskatzen dauena baliabide barri bat sortzea da, eta horrek “azterketa berezia” eskatzen dau. Azaldu dauenez, bere saila genero ikuspegia dabil apliketan daborduko gizarte arloko bazterkeria arriskuan bizi diran emakumeei zuzendutako ekintza batzuetan. Horreen artean, daborduko “lau emakumeri etxebizitza eskintzen deutsan – denpora gitxi barri beste bat sartuko da–” Habitat Bizkaia programea aitatu ditu.

GALDAMESEKO ALKATEA

EH Bilduk erantzun-eskea egin deutso Foru Gobernuari, Galdameseko alkate ohiak egindako adierazpenen inguruan. Txusa Padrones batzarkideak adierazo dauenez, alkate horrek, iraileko osokoa esan eban “Udalek diru publikoa erabilita Aldundiko teknikariei eta politikariei bazkariak ordaintzearen truke lortzen dituela inbertsinoak”.

Ibone Bengoetxea Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatu andreak “hori guzurreta eta guztiz faltsoa” dala adierazo dau. “Aldundi honek ez dau holan funtzionetan, ez politikariek, ezta funtzionarioek be”, azpimarratu dau diputatuak. Horren ostean esan dauenez “Bizkaiak 112 alkate ditu, eta ez dabe inoiz zuk esandakoa planteau edo iradoki”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
29/11/2017

Diputación quiere que Iberdrola ceda antes sus derechos sobre la central nuclear de Lemoiz

El diputado de Desarrollo Económico y Territorial, Imanol Pradales, ha informado hoy en el pleno de control celebrado en Gernika que las instituciones vascas están negociando con Iberdrola que esta compañía ceda en los próximos meses sus derechos sobre la central nuclear de Lemoiz, lo que podría adelantar que los suelos vuelvan a ser de titularidad vasca, una vez que el Gobierno central transmita los mismos “de la manera que más interese a las instituciones vascas”, en base al acuerdo firmado en mayo entre PP y PNV.

Pradales ha explicado que las tres instituciones implicadas –Gobierno Vasco, Diputación y Ayuntamiento de Lemoiz- están trabajando conjuntamente en "agilizar" esta renuncia “sin contraprestaciones" por parte de Iberdrola que mantiene de momento la concesión de los terrenos hasta el 29 de julio de 2018, para así "no esperar y dar el siguiente paso". Según ha indicado, lo prioritario ahora "es cerrar la renuncia a la concesión” con Iberdrola. El proceso se antoja “complejo” ya que los implicados tienen que acelerar “multitud de aspectos jurídicos y legales”, ha advertido Pradales.

El diputado ha contestado así a una interpelación de EH Bildu sobre el uso de los antiguos terrenos de la central nuclear de Lemoiz, donde está previsto impulsar un polo de acuicultura, según anunció recientemente el Gobierno vasco. El diputado de Promoción Económica y Territorial, ha recordado que "primero" es necesario cerrar el acuerdo político del pasado mayo entre PP y PNV para que "se cumpla la transmisión de los terrenos y su desafección de dominio público terrestre".

"36 MESES" PARA CONCLUIR EL PTS DE VIAS CICLISTAS

En una interpelación lanzada por el PP, que le preguntaba por la aprobación del Plan Territorial Sectorial de Vías Ciclistas de Bizkaia, Pradales ha anunciado que su puesta en marcha requiere de un periodo de “36 meses” de trabajos previos. El próximo "7 de diciembre" se cierra el plazo para que las empresas presenten sus ofertas al concurso público de asistencia técnica para la redacción del proyecto y la oficina de ciclabilidad.

Pradales ha recordado que su departamento ha reservado una partida de "175.000 euros" en los Presupuestos de 2018 para abordar esta cuestión y dar “los primeros pasos" a partir de enero y comenzar así a articular en Bizkaia una red “cómoda, segura y coordinada” con los territorios limítrofes, que deberá encajar en el PTS de Carreteras que se está debatiendo en una ponencia en las Juntas Generales.

EL ESG GLOBAL SUMMIT , EL 11 Y 12 DE JUNIO

Bizkaia celebrará los días 11 y 12 de junio de 2018, en el Palacio Euskalduna de Bilbao, su segunda ESG Global Summit , una cumbre que reunirá a expertos internacionales para analizar



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

las tendencias y novedades en torno a las inversiones socialmente responsables, según ha anunciado "en primicia" el diputado general de Bizkaia, Unai Rementeria, quien ha señalado que en esta edición pretenden la participación de una universidad de referencia "a nivel mundial".

El diputado general de Bizkaia ha comparecido en el pleno de las Juntas Generales para responder a una interpelación realizada por el grupo juntero de EH Bildu, que ha pedido al Gobierno foral que explique su "forma de entender" las denominadas inversiones socialmente responsables, criticando que se "trajera como invitado en la primera edición -organizada conjuntamente junto con la Universidad de Deusto y Fineco- al ministro Luis De Guindos, representante de "un partido corrupto", y a representantes de la "banca depredadora".

En su respuesta, el diputado general de Bizkaia, Unai Rementeria, ha reiterado la apuesta de su gobierno por el impulso de las inversiones socialmente responsables que son "una verdadera oportunidad" para Bizkaia. Este reto, ha indicado, será "más accesible" si Bizkaia cuenta con "un ecosistema financiero, el Bizkaia hub, una suma de acciones a corto plazo pero siempre con la mirada puesta a medio y largo plazo, con el deseo de recuperar la relevancia financiera que años atrás hubo en Bizkaia, de atraer actividad, creyendo en un modelo de progreso inclusivo", con inversiones "basadas en la economía real, no en la especulativa, con responsabilidades sobre el medio ambiente, las condiciones laborales y la forma de gobernanza".

CRITERIOS LINGÜÍSTICOS EN BIZKAIBUS

Por otro lado, EH Bildu ha preguntado al diputado de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio, por los criterios lingüísticos que se siguen en la publicidad de Bizkaibus, ya que esta formación ha recibido "quejas" por este asunto. El responsable foral ha indicado que la Diputación no ha introducido criterio alguno a las empresas sobre el idioma que deben utilizar en sus comunicaciones. Aún así, "el 59% de los autobuses" han llevado mensajes publicitarias en castellano y euskera.

Reyes ha señalado que la Diputación hace "un gran esfuerzo por fomentar el uso del euskera en las empresas". En el caso de la publicidad en los autobuses que recorren Bizkaia "no podemos imponer", ya que las empresas "no se anuncian si no logran el efecto querido". El diputado se ha comprometido "a estudiar que se estimule" el uso de la lengua vasca en la próxima licitación de los espacios publicitarios, si bien ha advertido que en otros transportes públicos "no existe este requisito".

DOS APORTACIONES CIUDADANAS INCORPORADAS AL ANTEPROYECTO DE CAMBIOS TRIBUTARIOS

El anteproyecto de modificaciones fiscales ha recibido cerca de "50 aportaciones" durante el periodo de audiencia e información pública, de las que la mitad se han considerado "pertinentes" con sus contenidos y "dos" se han incorporado al texto, según ha informado el diputado de Hacienda, José María Iruarrizaga.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

El diputado ha sido preguntado en el pleno por Podemos Bizkaia por la contribución de agentes y expertos al anteproyecto. Su apoderada Asun Merinero ha acusado al Gobierno foral de "hablar con algunos agentes económicos y con otros no".

Durante los quince días de audiencia e información pública del texto normativo, entre el 2 y el 17 de noviembre, 20 personas o entidades han entrado en el proceso de participación, aunque sólo siete se han registrado correctamente y dos han realizado aportaciones. El total de aportaciones ronda los 50, si bien la mitad no tiene relación con los tratamientos tributarios de la norma. Iruarrizaga ha apuntado que la ciudadanía tendrá nuevamente oportunidad de alegar cambios en el proceso de tramitación en las Juntas Generales de Bizkaia.

PROGRAMA ESPECÍFICO PARA MUJERES EN RIESGO DE EXCLUSIÓN

Por otro lado, la diputada de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, Teresa Laespada, ha explicado al PP, que le pedía la puesta en marcha ya de un programa específico para mujeres en riesgo de exclusión social, que el departamento que dirige está realizando un "replanteamiento" del servicio de Mujer y Familia para adaptar el mismo a las necesidades de las mujeres que viven en riesgo de exclusión social, ya que la Diputación ha detectado una "brecha de género".

El apoderado popular Eduardo Andrés ha criticado que lleven "dos años" anunciando la puesta en marcha de un programa específico para mujeres excluidas y evaluando su coste, si bien este no acaba de concretarse. En realidad, cree que la diputada "conoce el gasto" pero que su departamento no tiene dotación económica para llevarlo a cabo, por lo que han presentado una enmienda en los presupuestos de 2018.

Laespada ha señalado que lo que pide el PP es generar un recurso nuevo y eso requiere de un "análisis especial". Ha explicado que su departamento ya está aplicando la perspectiva de género en algunas acciones dirigidas a mujeres en riesgo de exclusión social, citando el programa Habitat Bizkaia en donde ya se ofrece vivienda "a cuatro mujeres y otra entrará en breve".

ALCALDE DE GALDAMES

Asimismo, EH Bildu ha planteado una pregunta al Gobierno foral sobre las manifestaciones del exalcalde de Galdames que, según ha afirmado su juntera Txusa Padrones, aseguró en el pleno de septiembre que "los ayuntamientos consiguen inversiones a cambio del pago con dinero público de comidas a técnicos y políticos de la Diputación".

La diputada de Administración Pública y Relaciones Institucionales, Ibone Bengoetxea, ha asegurado que "es mentira y totalmente falso". "Esta Diputación no funciona así, ni los políticos ni los funcionarios", ha subrayado la diputada, que ha indicado que "Bizkaia tiene 112 alcaldes y nunca han planteado o sugerido lo que pregunta".